

2021/00000054 DEKRETUA

**DEKRETUA:** Hernanin, 2021/01/20

2019ko martxoaren 25eko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren eta martxoaren 14ean Tokiko Garapen Batzordeak emandako irizpena kontuan izanik, **Berriak-Udala diru-laguntza hitzarmena 2019** onartzea erabaki zuen aho batez.

BERRIAK ELKARTEA-HITZARMENA partidako aurrekontua handitu egin zenez (2018ko soberakinen kontura) hitzarmena indarrean dagoen bitartean, urtero 27.000 euroko dirulaguntza ematea proposatu zen aipatutako hitzarmenean.

Hori dela eta, **Berriak-Udala diru-laguntza hitzarmena 2019 Osoko Bilkurak onartzea** proposatu zen. Hau da, "Berriak" Hernaniko merkatarien eta ostalarien elkartearentzat hitzarmena indarrean dagoen bitartean, urtero 27.000 euroko dirulaguntza izendatzea.

Toki Garapenerako batzorde informatzaileak 2019ko azaroaren 14ean emandako irizpena kontuan hartuta:

**2019ko azaroaren 26ean egindako bilkuran, Osoko Bilkurak, aho batez ERABAKI zuen "Berriak" Hernaniko merkatarien eta ostalarien elkartearentzat 27.000 € izendatzea (hitzarmena indarrean dagoen bitartean).** Kontusaila: 1 02.481.01.241.00 2019 BERRIAK ELKARTEA-HITZARMENA (4552)

Hitzarmenak dionaren arabera:

\* Hitzarmena indarrean egongo da: sinatzen denetik, gehienez ere 4 urte (2019, 2020, 2021 eta 2022). 4 urte horiek igaro ondoren, hurrengo 4 urteetan urtez urte berrituko da bi aldeak ados egonez gero.

\* Diru-laguntzaren %60 (16.200,00 euro) aurrerapen gisa ordainduko da. Diru-laguntzaren %40 (10.800,00 euro) justifikazioa aurkeztean ordainduko da, Alkatearen (edo eskuordetza) ebazpen bidez.

Hori dela eta, eman zaizkidan ahalmenak baliatuaz, honako hau

#### **ERABAKI DUT:**

- Berriak merkatari eta ostalari elkarteari, 2021eko dirulaguntzaren % 60 aurrerapen gisa ordaintzea (16.200,00 euro).
- Udalaren diru partida honen bidez ordainduko da:

1 02.481.01.431.00 2021 (4552) BERRIAK ELKARTEA-HITZARMENA

Maria Francisca Iburguren Echeverria Tokiko garapena, turismoa eta merkataritza zinegotziak agindu eta sinatu du, eta nik, Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa udal idazkaria naizenez, ziurtatu egin dut.- Sinatua: Tokiko garapena, turismoa eta merkataritza zinegotzi delegatua. Sinatua: udal idazkaria